

ESPAINIAKO LIGAK



PARTIDAK ETA SAILKAPENAK

LEHEN MAILA

25. JARDUNALDIA

Mallorca	-	Bartzelona
Valentzia	-	Celta
Espanyol	-	Valladolid
Real Madril	-	Las Palmas
Malaga	-	Alaves
Deportivo	-	Vila-real
Reala	-	Zaragoza
Tenerife	-	Sevilla
Osasuna	-	Rayo
Betis	-	Athletic

SAILKAPENA*

▲ 1. Valentzia	42	+ 8
▲ 2. Celta	40	+ 5
▲ 3. Real Madril	40	+ 13
▲ 4. Deportivo	40	+ 7
■ 5. Bartzelona	39	+ 18
■ 6. Alaves	39	+ 3
7. Betis	38	+ 4
8. Athletic	38	0
9. Valladolid	35	- 10
10. Sevilla	34	- 9
11. Villarreal	30	- 2
12. Espanyol	30	- 9
13. Las Palmas	29	+ 4
14. Osasuna	29	- 6
15. Zaragoza	29	- 10
16. Malaga	28	- 3
17. Mallorca	26	- 5
▼ 18. Rayo	24	- 11
▼ 19. Tenerife	23	- 17
▼ 20. Reala	22	- 9

▲ Txapeldunen Ligara ■ UEFAra ▼ Bigarren A Mailara
Atzoko emaitzak kontuan hartu gabe*

BIGARREN A MAILA

27. JARDUNALDIA

Oviedo	-	Ferrol
Racing	-	Jaen
Elx	-	Sporting
Xerez	-	Burgos
Kordoba	-	Badajoz
Gimnastic	-	Leganes
Albacete	-	Numancia
Ejido	-	Levante
Murtzia	-	Recreativo
Extremadura	-	Eibar
At. Madril	-	Salamanca

SAILKAPENA*

▲ 1. At. Madril	53	+ 22
▲ 2. Xerez	46	+ 8
▲ 3. Recreativo	44	+ 9
4. Racing	40	+ 8
5. Oviedo	38	+ 8
6. Sporting	38	+ 5
7. Burgos	38	+ 1
8. Albacete	37	+ 5
9. Salamanca	36	+ 1
10. Eibar	35	+ 10
11. Badajoz	35	- 3
12. Ferrol	34	- 3
13. Extremadura	33	- 1
14. Elx	33	- 5
15. Jaen	33	- 7
16. Kordoba	32	- 3
17. Leganes	31	- 4
18. Numancia	30	- 9
▼ 19. Murtzia	28	- 6
▼ 20. Gimnastic	28	- 7
▼ 21. Levante	25	- 14
▼ 22. Ejido	20	- 15

▲ Lehen Mailara ▼ Bigarren B Mailara
Atzoko emaitzak kontuan hartu gabe*

J. M. ESNAL 'MANE' (Alaveseko entrenatzailea)



AURKARIA

«Malagak gol portzentaia oso altua du prestatutako jokaldietan, eta horrek partidako edozein unetan beldurgarria egiten du»

EGONALDIA

«Malagan lan egiteko baldintzak bikainak dira; ea baldintza horiei fruiturik ateratzerik badugun»

ALAVES. Azken partidatoko hamaikako berbera zelairatuko du Manek Malagaren aurka

Akatsetatik ikasteko aukera


Beheko taldeen aurka irabazten ere badakiela erakutsi behar du gaur Alavesek

Malaga-Alaves (Espainiako Ligako 25. jardunaldia)

Malaga

Entrenatzailea: JOAQUIN PEIRO

Sailkapena	16.	Jok.	12	Ira.	4	Ber.	5	Gal.	3
Puntuak	28	Etxean	12	Kanpoan	2	5	5		



Aulkian: Amau, Rojas, Valcarce, Leko, Manu, Duda, Edgar, Canabal.

PPV 17:00 La Rosaleda (25.000 ikusle) Muñiz Fernandez

Azken bost denboraldietako emaitzak

2000-01 3-1 / 1999-00 0-1 / 1998-99 - / 1997-98 - / 1996-97 -

Partidako datua

Hasierako hamaikako bera hirugarren aldiz jarraian erabiliko du Manek Malagaren kontra.

Partidako protagonista



Jordi Cruyff. Lerro artean tokia topatzen badu min handia egin dezake Peiroren defentsan.

Partidako esaldia

"Etetik kanpo gure jokoa hobeto egiteko aukera dago, etxeko taldeak baitu erasora egiteko beharra" (Jordi Cruyff, Alaveseko jokalaria).

Alaves

Entrenatzailea: JOSE MANUEL ESNAL 'MANE'

Sailkapena	6.	Jok.	13	Ira.	7	Ber.	1	Gal.	5
Puntuak	39	Etxean	13	Kanpoan	5	2	4		



Aulkian: Herrera, Karmona, Witschge, Magno, Mara, Ivan Alonso, Vucko.

Jon Rejado | GASTEIZ

Marpafut kirol gunea utziko dute gaur Maneren jokalariek garrantzi handiko norgehiagoka bati aurre egiteko. Malagak neurtuko du Alavesek abenduan eta urtarrilean egindako akatsetatik ikasi duena, orduan sailkapenaren behealdean zeuden talde gehienek kontra maila eskasa erakutsi baitzuen. Horretaz gain, sailkapenaren buruan beste astebetez jarraitzeko aukera dute jokoan gasteiztarrek, horrek suposatzen dituen onura guztiekin.

Marbella futbolaren paradisua kirol gunean bi egun egonda gauza asko egiteko aukera egon ez arren, Maneren taldea azken bi hilabeteetan egindako akatsa ez errepikatzen saiatuko da. Rayok, Osasunak eta Mallorcak, besteak beste, Gasteizko taldeak baino gogo gehiago jarri zuten zelai gainean, eta horri esker lortu zituzten hiru puntuak. Hori dela eta, Joaquin Peiroren taldea baino jarrera hobea erakutsi beharko dute Manerenek, hiru puntu garrantzitsu lortu ahal izateko.

Mendizorrotzan 1-0 emaitzarekin bukatu zen Malaga eta Alavesen arteko norgehiagoka, Llorensek sartutako penalti bati esker. Gaurko neurketa bide beretik joango dela ematen du, bi taldeen oinarrien artean parekotasun handiak baitaude: talde lana, presioa eta kontrae-

rasoa. Etxetik kanpo jokatzek, ordea, mesede egin diezaioke Gasteizko taldeari. Erasora egiteko ardura etxeko taldearena denez, presioa eginez lapurtutako baloien bidez kontraerasoan min egiteko aukera dute gasteiztarrek, Deportiboren kontra egin zuten bezala.

Alavesek, gainera, zaleen tentsioarekin joka dezake gaur gauean, Malagak puntuak behar-beharrezkoak ditu sailkapenaren atzeko postuetatik apur bat aldentzeko. Hori dela eta, aurreko partidaren markagailuak Joaquin Peiroren taldearen kontra egiten badute, minutuak aurrera joan ahala urduritasuna sumatuko da bai zelaian bai harmailetan.

Malagak, ordea, nahiko maila ona erakutsi du bere zelaian, eta partida guztietan golen bat sartu du. Alaveseko atzeko lerroak azken norgehiagoketan ez du denboraldi hasierako maila lortu, eta gaurkoan erakusten duten seriotasunaren arabera markagailua erabakiko da. Alavesen nortasunak inoiz baino indar gehiago izan behar du. Maneren jokalariek presio itogarrian oinarritu beharko dute jokoa, eta, nola ez, etxeko taldeak baino tentsio handiagoa erakustea ezinbestekoa izango da. Marbellan egindako lan apuraren ondorioak baino, Alavesen benetako nortasuna izango da gaur erabakigarria suerta daitekeen gauza bakarra.



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Jokalariek asteazkenean Astudillok sartutako gola ospatzen.

